

ESKOLA KIROLA HEZITZAILE BATEN BIDEAN

Eduardo Orgaz Gallastegui

Bergara Kirol Elkarteko Eskola Kirola Saila

Correo electrónico para comunicaciones: edupenf@gmail.com

Arloa: Formakuntza kirola.

Laburpena: Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen Eskola Kirolak hezitzailea izan behar duenik, balioak jorratu eta haurrak protagonista bilakatuz, norbanakoaren beharrak betetzeko jarduera denik. Eskolen eskutik, partaideen osotasunezko garapena (garapen integrala) du helburu nagusi. Ideia honetatik abiatuta, gure esperientzia plazaratuko dugu, antolaketa, alderdi metodologikoak eta zenbait ekintza zehatz deskribatuz.

Gako hitzak: Hezitzaile, metodologi berriak, elkarlana, ekintza zehatza.

Sarrera

Urteak daramatza, Bergarako Kirol Zerbitzuak, herriko biztanleriaren kirol ohitura osasuntsuak bultzatzeko ekimenean. Honetarako, Eskola Kirolak duen garrantzia handia denez, Udaletxe, Eskola eta Kirol Elkarteen arteko proiektu eraldatzaileari hasiera eman zitzaion.

Luis Mari Zulaikak ederki adierazten duen bezala, kirola ez-hezigarri bihurtzen duten hiru elementu daude: gehiegizko lehiakortasuna, hautatze irizpideak eta espezializazio goiztiarra. Honi aurre egiteko, sortu da proiektua, ardatz nagusi desberdinekin: Eskola Kirola hezitzailea, jarduera anitzekoa eta aholkularitza zerbitzua. Herrian eskaintzen diren kirol jarduera desberdin guztiak hurrei ezagutaraziz, eta agente desberdinen arteko harremana sendotuz.

Honela, Bergara Kirol Elkartea osatzen duten sail desberdinek, Eskola Kirola kudeatzeko enpresa bat sortu zuten. Bien arteko zubi lana eginez, Eskola Kirolean emandako heziketari jarraikortasuna ematen dio, eta sail desberdinen (kirol desberdinen) arteko elkarlana bultzatzen du.

Elkarteko Eskola-Kirol sailak, koordinatzaile nagusi bat eta hezitzaile talde bat kontratatatuak dauzka. ~~Lehenak~~ Koordinatzaileak, Eskola Kirola kudeatzen du: programazioak, irizpide metodologikoak, etengabeko formakuntza, eta abarrez arduratuz. ~~Bigarrenak~~ Hezitzaile taldekoek, saioak dinamizatzeaz gain, elkarteko sail bakoitzean parte hartzen dute, haurrak elkartetara igarotzean entrenatzaile lanak eginez hastapen taldeetan, duten heziketa eta esperientziagatik, beraiek baitira benetan hastapen aldiko espezialistak.

Honela, goian aipaturiko arazoari aurre egiten ahalegintzen gara, lortu nahi ditugun helburu bakoitzarekiko ekintza zehatzak martxan jarritz. Hurrengo lerrotan, ekintza hauetan sakonduko dugu, ahalik eta modu sinpleenean eta ulergarrian gure planteamendua deskribatuz.

Proiektua

Esan bezala, gure proiektuak baditu ardatz nagusi batzuk, besteak beste, gure haurrak kirol ohitura osasuntsuan hezte, aisialdirako zaletasuna sustatu hain zuzen ere, eta hau beraien bizitza osoan luzatu ahal dezaten baliabideak bereganatzea. Horregatik, lehen pausoa, herrian bertan edo inguruan ditugun kirol aukera desberdin oro ezagutu araztea da, kirolak duen karga hezitzaile, sozializatzaile, jostagarri, eta abarretan oinarrituz. Haurrek kirol jarduera anitz ezagutu behar dituzte, jardun horretan gozatuz, autonomia osoz benetan gustuko duten kirol jarduerak hautatu eta aritu daitezen etorkizunean.

Era honetan, kirol aniztasuna ziurtatzeaz gain, espezializazio goiztiarra ere atzeratu dugu eta hautatze irizpideak, eskola-kirolak irauten duen urteetan zehar eginiko haur bakoitzaren jarraipenean oinarritzeko bidea egiten ari gara.

Adin hauetan, guztiok dakigun bezala, badira ere kirol sail bakoitzak antolatzen dituen Kirol Eskolak. Gure kasuan, eta Eskola Kiroleko jarduerarekin uztartzeko, asteko egunak zehaztu ditugu. Honela, astelehenetan kirol sailak antolatutako Kirol Eskola saioak izaten dira, eta asteko beste egun guztietan zehar, Eskola Kiroleko saioak izaten dira.

Eskola kirolaren antolaketa

Bi asteburuko jardunaldi mota ditugu: Talde Kirol egunak eta Topaketa eguna, astebururo txandakatzen ditugularik.

Lehenak, futbola, saskibaloia eta eskubaloia jorratzen ditu, baina nahiz eta lehia moduan antolatua egon (partiduak baitira), emaitzetan jarrerak eta parte hartzeak puntuaketaren bi heren balio ditu. Puntuaketaz gain, eta lehiaren alderdi hezitzailean fokatu nahian, epailerik gabeko partiduak martxan jarri ditugu. Haurrak dira kasu honetan ere protagonista, beraien esku dago egoera bakoitzean araudiak diona jakitea, onartzea eta betetzea. Noski, kirol bakoitzari dagozkion epaileak bertan izaten dira, baina ikusle edo bideratzaile lanak besterik ez dituzte egiten. Ekintza honen bitartez, protagonisten autonomia bultzatzeaz gain, lehia guztietan ezinbestekoa den epaile rola ezagutu dezaten sustatu nahi dugu, honenganako errespetua landuz eta epailea ere kirolaria den heinean, jarduera hau ezagutaraztea. Lehiatan, ez dugu sailkapenik egiten, eta ikasturte amaieran guztiek sari bera jasotzen dute.

Topaketa, talde kirola ez den jarduera guztiei zuzendua dago: irristaketa, ur-jarduerak, musika edo erritmo jarduerak, pilota, herri-kirolak, orientazio jolasak, atletismoa,

txirrindularitza, tresna-kirolak, etab. Guzti hauek ere herrian bertan, erakunde desberdinetan, eskaintzen diren jarduera posibleak dira eta gure haurrekin harreman zuzena dute topaketa egun hauetan. Jarduera hau, kirol aukera desberdinak ezagutzera bideratzeaz gain, haur bakoitzaren motibazio, nahi edo ezaugarrietara begira egiten dugu, guztiek bai dute zer eskaini eta non sentitu gustura, zoriontsu eta protagonista.

Astean zehar egiten diren saioek, asteburuko jardueran oinarrituz, dagokion kirola jorratzen dute. Kirolen bitartez, hezkuntzako dekretuak zehazten dituen garapen aldiko edukiak garatzen dira, haurren alderdi sozio-afektiboa, motriz eta baloreak, era autonomoan jorratzeko aukera emanez. ~~Honetarako~~ Aipatutako helburuak lortzeko, saioak honako atal hauetan banatzen ditugu:

Ongi etorria eta aurre informazioa: saioaren helburuaren arabera, ikasleen atentzioa fokatzeko erabiltzen dugu. Agurra, asistentzia taula betetzea eta aurre informazioa.

Beroketa orokorra eta berariazkoa: gorputza martxan jartzeko eta egingo ditugun jardueretarako prestatu (alderdi fisiko motrizak edo/eta kognitiboak).

Atal nagusia: bertan jarduera desberdinak bereizten ditugularik.

- **Trebetasun motrizak garatzeko jarduerak;** zeintzuk kirol desberdinen ekintza teknikoekin uztartzen diren, eta norbanakoaren beharretara doitzen ditugun.
- **Jolasak edo egoera jolastuak:** non landutako trebetasun motrizak, joko baldintza desberdinetan praktikan jartzen dituzten, egoera desberdinetara doitzuz.
- **Kirol edo joko moldatuak:** kirolaren praktika bera, non moldaketa txikiak egiten ditugun, saio bakoitzean landutakoa egoera errealera transferitu dezaten.

Lasaitzea: lasaitzeko jardueraren bat egiteaz gain, ezinbestekoa dugu saioan gertatutakoaren hausnarketa (feedback) egitea, non haurrak parte hartuko duen, bere gogoeta pertsonala edo informazioa partekatuz.

Jarduerak eta hezitzaileak

Jarduerak, hurrek beraien mugimen aukerekin jolastuz eta elkarlanean, ebatzi beharreko erronkak bezala ulertzen ditugu. Bertan, hurrek erabakitze eremu zabala dute: jarduera nola burutu, estrategiak eta aldaerak proposatu, kideak lagundu, etab. Honetarako, hezitzaileen rola garrantzitsua da oso, batzuetan ikusle hutsak izango dira, bestetan bideratzaile, dinamizatzaile eta motibatzaile. Hezitzaileak dira, haurrak pentsatzeko, hausnartzeko, erabakitze gaitasunak bultzatu behar dituztenak, guztien aukerak bermatuz, eremu eta giro egokiak sortuz; non haurrak eroso eta seguru sentitu behar diren, autonomia eta konfiantza osoz beraien usteak / ideiak / proposamenak / sentimenduak adieraziko dituzten. Honekin lotuta, baloreen garapena lantzen dugu.

Honetarako gure hezitzaileei baliabideak eskaini behar dizkiegu, eta hau, etengabeko formakuntza nahiz ebaluazio saioen bitartez egiten dugu. Oinarri metodologiko teorikoetan sakonduz (metodologia berriak besteak beste), nahiz saioetan gertatzen dena aztertuz eta hobekuntza proposamenak luzatuz. Formakuntza ikasturteko une desberdinetan egiten dugu, bai barnekoa eta baita, aukera dagoenean, beste erakunde batzuetan ere. Ebaluazio saioak aldiz, bi astetik behin egiten ditugu, eta benetan aberasgarriak dira. Bertan, hezitzaileek egin dutena aipatzen dute, zein esperientzia ondo atera den, zeinetan arazoak izan dituzten eta nola jokatu duten, eta azkenik guztion artean hobekuntza proposamenak luzatzen ditugu zeintzuk ekintza zehatzetan bihurtzen diren.

Hezitzaileek komunikatzaile onak izan behar dute, errefortzu, feedback eta kontsigna kudeatzaile onak izan behar dute hain zuzen ere, eta ildo honetan lanean aritzen gara.

Ebaluazioa

Esan bezala, hezitzaile eta koordinatzailearen ebaluazioa nahiz saioena bi astetik behin egiten dugu, baina gure ikasleak ere ebaluatu beharra dugu. Garrantzia ebaluazio jarraian fokatzen dugu, tresna ezin hobea delako eguneroko jarduerak talde nahiz norbanakoaren beharrei egokitzeko unean. Hiru dira ebaluatzen ditugun alderdiak: bultzatu nahi ditugun balore eta jarrerak, garapen motriz (hezkuntza dekretuak garapen aldiko zehazten dituenak) eta euskararen erabilera maila.

Jarraipen honek, informazio franko ematen digu haur bakoitzarekiko, eta eskola-kiroleko aldia amaitzerako, ikasle bakoitzaren trebetasunak, nahiak eta motibazioak ezagutzen ditugu. Honela erresagoa egiten zaigu aholkularitza lana, eta bideratze lana. Nolabait, elkarteen hautatze irizpideak bertan oinarritzea nahi dugu, nahiz eta esan beharra dagoen atal honetan denbora beharko dugula ia emaitza zein den jakiteko.

Ondorioak

Eskola Kirola eraldatu nahi badugu, ezinbestekoa zaigu, honetan parte hartzen duten agente guztiak elkarlanean eta norabide berean jartzea. Eskola bera, hezitzaileak (monitore edo entrenatzaileak), kirol elkarteak, gurasoak (hauek monografiko oso bat beharko lukete), etab.

Kirol hezitzailea helburu izanik, nahita ez, gure hezitzaileak nahiz koordinatzaileok metodologi berrietan formatu behar gara, ez da nahikoa berezko formakuntzarekin, hobetzen jarraitzeko etengabeko ekimena izan behar du heziketa.

Zer lortu dugun jakiteko, nora heldu nahi dugun argi zehaztu beharra dago, eta lorpen maila, norbere parte hartzea, nahiz prozesu bera ebaluatu beharra dugu. Hausnarketa sakona ezinbestekoa da, oraindik ere asko direlako, kirolak gure gizartean duen garrantzia ulertzen ez dutenak, edo norabide bakarrean ulertzen dutenak.